

1919

Lekeitioko tuerra

SOROLLA



GUEZALA



Gizon eta emakume handiak izan ditugu historian zehar baina bakar batek ere ezin du esan Sorollak lehenengo eta Tellaetxek geroago pintatu zuela. Arrantzale umil hau historiara pasatu da, baina ez dakigu nor den. Arrasto bat bakarrik geneukan, Juan de Dios deitzen zela, nahikoa hasteko (*Ahí están en esos lienzos y así quedarán para siempre Martinkiñu; Juan de Dios, el tuerto; Chilibristo, Pedro Miguel, Pedrucho, el "cho" y otros más*). Dokukliken eta Bake epaitegian ikertu ondoren, Lekeitioko Juan de Diosen artean, egokiena Goikoetxea Likona abizeneko bat zela zirudien. Orduan denek zekitena, gu asmatu ezinik ibili gara!

1849-12-12an (matrikulen arabera abenduaren 11koa zen) jaio zen Juan de Dios Goikoetxea Likona, usadio zaharren arabera San Juan de Dios egunekoa, hau da, martxokoren 8koa espero bagenuen ere. 1880an Romualda Etxaberekin ezkondu zen eta guk dakigula gazte hilko zen seme bakarra izan zuten. Arrantzalea izan zen eta itsasoko matrikuletan aurkitu dugu 1871, 1882 eta 1906an. 1871koan 21 urte zeuzkan Bernardo eta Mariaren semeak (estatura alta, cabello castaño, ojos castaños, nariz afilada, color bueno, barba poca, estado soltero). Morrozko galant horrek 11 urte beranduago, 1882an, 33 urtekin bizar zarratua zeukan eta ezkondu zegoen. Tierra zen, ez dakigu noiztik, tiene un defecto en el ojo izquierdo. Hurrengo eta azken

matrikulan, 1906an, 57 urte egin berri, txikertu barik segitzen zuen baina ilea urdintuta zeukan.

Sei urte beranduago pintatu zuen Sorollak eta beste zazpi bat beranduago Tellaetxek eta Antonio Guezalak. 1919an, Julian Tellaetxek ospea lortu zuen urtean, Juan de Dios, ordurako alargunduta, Lekeitioko hospizioan hartu zuten. Bost urte beranduago, 1924an, hil zen 74 urterekin. Ia ehun urte beranduago aurpegi horri izen-abizenak aurkitu dizkiogu; beste ehun urte barru zuotaz eta gutaz inor ez denean gogoratzen, Tellaetxeren tuerrak akorduan jarraituko du mihisean betirako preso geratu zelako!

TELLAETXE

